

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Agustin Amasorrain Linazisoro

*Bergara,
Gipuzkoa
(1950)*

Aurkibidea



Biografia



Labe Garaietako etxe berrietan jaioa. Aita zerrajeran zebilen lanean, aita jauna bertako buruetako bat baitzen (Arrasatetik Bergarara joana). Amaren aldetik, berriz, aitona Zumaiatik joan zen Bergarara, eta Batzokiko presidentea izan zen gerra aurrean; aitona-amonek antzerkia egiten zuten. Agustinek bere familiari eta osaba Txomin Amasorraini buruzko hainbat kontu kontatzen ditu elkarrizketa honetan. 13 urterekin, osabarekin eta Josu Oregirekin hasi zen alfabetatzen Agustin. 18 urterekin, Simon Arrietaren pintura akademian hasi zen, eta artista mugimenduaren parte bihurtu zen (Beart elkarteko kidea da). Horri buruz ere hitz egiten du. Ingenieritza ikasi zuen Donostian, eta hainbat kooperatibatan egin du lan (besteak beste, Oronako jerentea izan zen).

Zintak

BER-355

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-27
- **Iraupena:** 137 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

BER-356

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-27
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Labegaraietako etxean jaio zen

- **Erref:** BER-355/002
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:00:24. **Bukatu:** 00:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Labegaraietako lehenengo etxeetan jaio zen, etxean bertan. Aitak labegaraietan lan egiten zuen. Mikaela ibiltzen zen erditzeetan laguntzen.

2. Eusebio aitajauna "Cerrajera"ko arduradun

- **Erref:** BER-355/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:03:08. **Bukatu:** 00:05:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Aitaren aldeko aitajauna Eusebio arrasatearra zen eta "Cerrajera"n lan egiten zuen, arduradun. Bergarako lantegia zabaldu zutenean, 1912an bertara etorri zen lanera, eta familia Bergarara etorri zen bizitzera. Familiakoek "Cerrajera"n lan egin zuten.

3. Aitonak eta amonak antzerkia eginez ezagutu zuten elkar

- **Erref:** BER-355/004
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:05:03. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amaren aldekoak Linazisorotarrak dira. Aitona zumaiarra zen eta Argentinara joan zen mutikotan lanera. Dirutza egin arren, bueltatzea erabaki zuen. Gaixorik etorri zen. Kanta asko ezagutzen zituen eta antzerkia egiten zuen. Amona Nikolasa Lazpiur bergararra zen eta antzerkia egiten zuen, Batzokiko emakumeen taldean. Antzerkia eginez ezagutu zuten elkar aitona-amonek.

4. Jose Lazpiur oinetako enpresa

- **Erref:** BER-355/005
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:07:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Aitonak larruarekin tratatzen ikasi zuen Argentinan. Lortu zuen gerra aurretik Jose Lazpiur oinetako enpresa muntatzea aitagarrearekin.

5. Gerrarengatik aitona Agustin ihesi, ezkutuan eta epaitua

- **Erref:** BER-355/006
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:07:51. **Bukatu:** 00:10:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aitona Agustin Linazisoro gerrako komiteko kide izan zen; ordurako Batzokiko lehendakaria ere bazen. Sei seme-alaba zituen tropak Bergarara iritsi zirenean, eta Bilbora alde egin zuen. Baina handik etxera etorri eta ezkutuan bizi izan zen bolada batez. Bizitza normala egiten hasi zenean, atxilotu, epaitu eta libre geratzea lortu zuen. Murua y Balzola kondeak salatu zuen. Lantegia suntsituta, iltzeak egiteari ekin zioten.

6. Aitona Agustin Bergarako batzokian

- **Erref:** BER-355/008
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:11:21. **Bukatu:** 00:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1899an jaio zen aitona eta 1921 inguruan heldu zen Bergarara. Telesfororen idazkari lanak egin zituen. Hotel Lasaren parean zegoen batzokia. Hango lehendakari izan zen. Antzerki asko egiten ziren orduan batzokian; izendatu egiten ditu.

7. 1933an Bergarako lehen ikastola sortu zenekoa

- **Erref:** BER-355/009
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:13:44. **Bukatu:** 00:14:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1933an Bergarako lehenengo ikastola ireki zuten, batzokiaren ondoan. Aitona Agustin Linazisoro eta Telesforo Monzon izan ziren sorreran dirua jarri zutenak. Tropak sartu zirenean, erabat apurtuta geratu zen.

8. Batxilergorako akademia eta haurtzaindegia batu zirenekoa

- **Erref:** BER-355/010
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:14:42. **Bukatu:** 00:16:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Batxilergoa ikasten ari zirenentzako akademia zegoen lehen ikastola egondako lekuan. Maria Victoria Arizmendi eta Lide Mujika (Oregi diote, baina Mujika da) zeuden akademian irakasle. Haurtzaindegiko buru Jose Amilibia zen, epailea zen. Akademia eta haurtzaindegia batu egin ziren. Dominikoek ikastolak lokala lortzeko bitartekaritza egin zuten.</p>

9. Ikastolako hasierako urteetako kontuak

- **Erref:** BER-355/012
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:17:22. **Bukatu:** 00:20:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Konbenio kaleko ikastolari eta akademiari buruzkoak aipatzen dituzte, azalduz bertako irakasleak zein ziren eta zein hizkuntza erabiltzen zen. 70eko hamarkadan ikastolan irakasle hasi ziren batzuk aipatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Beste ikastola bat be sortu zan Konbenixo kalia, Serafin Esnaola abariak-eta bultzatuta, eta Linazasorotarrak be hor tartian zerela-edo, hori daukat irakurritta nik.

- Ya, ya...

- Konbenixo kaleko ikastolia. Hori ya pixkat beranduau, e? Hirurogeta pikuan.

- Bai, nik pensatzen dot biharbada nik esan dotsutena ez zan oso zehatza izango. Bai, Konbenixokua eta Akademixia izan ziran elkartu ziranak. Eta, orduan, Akademixan zeren Maria Victoria, Lide eta Don Jose eta Konbenixuan egongo zan Don Serafin. Akademixia erderaz emoten zan eta Konbenixuan euskeraz emoten zan. Orduan, elkartu ziran, ikastolia egin zebe, baiña lehenengo taldiak mistoak ziran, bi aldetakuak. Nik ezagutu neban ikastolan, ezagutu nittuan lehenengo taldiak, eta euskeraz erakustia ere zaila izaten zan, porke bazeren batzuk Akademixatik etorritakuak erdeldunak zirenak, ezta? Baiña... Karo, oso... Bai, ba, Don Serafin hirurogeixan hasi bazan, ba, hala izango da. E? Nik esango neuke hirurogeita zazpi hirurogeita hamar inguru hortan nik uste dot ya forma hartu zebala, porke nere lehengusua, Mari Karmen Amasorrain, andereño hasi zan 71n edo, Arantzazu Narbaiza, Lupe... Osea... Bai, garai hortan.

- Bueno, Serafinena-ta hirurogeixan ez; hirurogeixan sortu zan Akademixiak, Jose Amilibiak eta Josu Oregik, ekarri zebe andereño bat Eskoriatzatik umiei euskeraz erakusteko.

- A, bale, bale.
- Orduan, babes legala zan Akademixan bittartez umiei klasiak, txikixei, euskeraz. Gero pasatzen ziran Akademixara.
- Bale, bai, bai. Haurtzaindegi bat bezela, gero Akademixara pasatzeko.
- Bai, haurreskola bai sortu zebela euskeraz.
- Bai, bai, bai. Bale, bale .
- Hori zan sortu zebena. Eta lehenengo andereñua gerra ostian hasi zana euskerazko klasiak emoten Bergan, hori, izan zan hor.
- Bai, Konbenixuan, Konbenixo kalia.
- Bai, Dominika Madinabeitia. Oin elkarriketatu...
- A, Dominika, bai, Dominika asko ezagutzen dot. Bai, bai, bai, Arrasatekua. Bai, bai. CIMeko... CIMeko... bai.
- Ba bera...
- Ba ez nekixen Dominka izan zanik e...
- Ba bera izan zan lehenengo... gerra osteko lehenengo andereñua edo. Eta astelehenian geratu naiz berakin.
- Aiba! Ba gorantziak emoiozu.

10. Amaren aldeko familia oso kulturzalea

- **Erref:** BER-355/013
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:20:03. **Bukatu:** 00:23:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amona Nikolasaren amak taberna zeukan eta hamar seme-alaba. Nikolasak bizi osoan idatzi izan zuen eta oso ondo abesten zuela dio. Aitona Agustinek pianoa jotzen zuen. Bere izeba-osabek oso ondo abestu izan dutela dio. Kultura arloan mugitu izan dira amaren familiakoak. Ama, Miren, dantzari ona eta aurkezle lanetan aritzen zela kontatzen du.

11. Gerra hasi zenean, sakristaua hil zuten

- **Erref:** BER-355/015
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:27:03. **Bukatu:** 00:28:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Tropa nazionalak sartu zirenean, ikastolako liburuak-eta erre egin zituzten. Sakristaua zena hil egin zuten errepublikanoek. Ondarretako kartzelan egon zen Julian "Beltza", hilketa harengatik errudun jo zutena; azkenera arte ukatu zuen bera izan zenik.

12. 1934ko iraultza Arrasaten eta Bergaran

- **Erref:** BER-355/016

- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:28:47. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>1934ko urriko iraultzan gertatutakoak kontatzen ditu. Marcelino Oreja eta beste bi gizonen bila joan ziren. Marcelino Oreja "Cerrajera"ko zuzendaria zen eta hil egin zuten; beste bat ere bai. Egun berean Camilo Basterretxea atxilotzera etorri ziren Bergarara; abisua jaso zuen eta sozialistak iritsi zirenerako, ez zegoen han.</p>

Transkripzioa

- Aurretik, 1934ko iraultzan, hor be "Cerrajera"n-eta pasau ziran Mondrauen kontu batzuk gero zerikusixa euki dabenak Txomin Amasorrainen bizitzan, adibidez, ez?

- Bai, hor 34ko urrian, "revolución de octubre" deitzen da, eta sozialistak pentsau zeбен, ba, iraulketa ingo zebela eta, ba, gobernua aldatuko zebela, ezta? Orduan diktaduria zegoen. Orduan, ba, egun hortan -esan dogu zein egun zan ezta?- urriaren 4a, Arrasaten goizian goiz jua ziran Toribio Agirre... ez, Toribio Agirrez ez, Marcelino Oreja -Marcelino Oreja zan garai hartan "Cerrajera"ko zuzendari- eta beste bi gizonen bila jua ziran. Honek eruan zittuzten han zerka ostera eta, klaro, konturatu ziran goizian zihar, ba, reboluziñua zaila zala egiten. Osea, gizon batzuk hartzia bai, baiña gauza bat iraultzia oso zaila dala, ezta? Eta nik uste dot suertatu zirala gero Vittorixatik, ba, ez dakit Flandeseko terzioak-edo etorri ziran, ba, insurrekziño haura moztera, ezta? Eta, ba, zer hortan tirokatu in zittuzten; hiruretaiko batek ihes in zeban, Azkoaga batek, eta bi gizon hil in zittuzten, beren artian Marcelino. Ezta? Karo, Marcelino zan "Cerrajera"ko burua. Bera ezkondata zeuan Pureza Agirrekin. Pureza zan Toribio Agirreren alabia. Toribio zan lehenengo zuzendarixa "Cerrajera"koa eta gero, ba, zera, testigua pasau zotsan Toribiori. Eta, bueno, ba, hori hil zeбен, orduan, izandu zan oso era gogorra. Egun berian sozialista batzuk Arrasatetik etorri ziran Bergarako Camilo Basterretxea detenitzera. Eta Altos Hornoseko Pedro Urbinak abisau zotsan zerari, Camilori, ba, bere bila zetoze. Nik ez dakit o personaz jua zan o telefonoz edo nola ingo zeбен. Camilok, ba, etxetik alde ein zeban eta sozialistak iritsi ziranerako ba ya ezin izan zeban harrapau. Pentsatzen dot harrapau izan bazeбен, ba, seguruasko, ba, Marcelinon bide berbera jarraituko zebala. Ezta? Orduan, nik uste dot tema horrek min haundixa sortu zebala ba, bueno, ba, herrixan eta gure familixan ere bai, ezta?

13. 1932an sozialistek Aranburu hil zutenekoa

- **Erref:** BER-355/017
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

1932an ere Eibarko sozialista batzuek hitzaldia eman zuten Bergaran eta Pedro Aranbururen aita hil egin zuten. Bere aitajaun Eusebiok beldur handia pasatzen zuen. Ezkutatzen zenik ere bazen.

14. Txomin Amasorrain gerra garaian etxean

- **Erref:** BER-355/018
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:35:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Aitajauna Bergarako "Cerrajera"ko buru nagusia zen, tropak iritsi zirenean, eta haren seme Txomin Amasorrain etxean geratu zen. Mendigoizaleekin asko irteten zen. "Cerrajera" militarizatu egin zuten eta bonba asko egin zituzten gerrarako. 1941ean ezkondu zen eta lanean hasi zen berriz, txapan.

15. Txomin Amasorrain eta Joxu Oregi

- **Erref:** BER-355/019
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:35:18. **Bukatu:** 00:37:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Txomin Amasorrainek batxilergoa egin zuen eta azken hiru urteak Frantzian ikasi zituen. Literatura zalea zen. Joxu Oregik ere antzeko bidea egin zuen. Gerratea sortu zenean, familiak Iparraldera alde egin zuen; handik Joxu Belgikako Liex herrira bidali zuten, eta han ingenieritza ikasketak egin zituen. Handik etorrita, fisika eta kimikako klaseak eman zituen. Txomin eta Joxu, biak, oso euskaltzaleak ziren.

16. Txomin eta haren anaiak elementaleko irakasle

- **Erref:** BER-355/020
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:37:56. **Bukatu:** 00:40:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

1944an elementala eskola martxan jarri zen. "Cerrajera"k garrantzia handia izan zuen hortan. Don Jose Maria Agirre izan zen zuzendaria hasieran, "Cerrajera"ko gerentea zena. Txominek matematika irakasten zuen, bere anaia Gilbertok kimika eta aita, Emiliok, teknologia. Hiruen ikasketak aipatzen ditu.

17. 1963an euskarazko klaseak jasotzen

- **Erref:** BER-355/021
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:43:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

1963an, bere lehengusuarekin batera, euskarazko klaseetara joaten hasi zen. Talde bakarrean hamabi bat lagun ziren. Ikaskide batzuk aipatzen ditu. 1965ean Jon Oñatibiak euskara radiofonikoa metodoa atera zuen, eta urtebete beranduago Patxi Altunak "Euskara, hire laguna" egin zuen. Txominek liburu asko zituen etxean, gehienak erlijiosoak.

Transkripzioa

- Klasiak erderaz?

- Erderaz ziran, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Bai eta gero Elementala... nik ba hamairu urte nekan hirurogeta hiruan. Txominen semia zan Sasio, Sasio, nere lehengusua. Oso harreman estua euki giñuan Sasiok eta nik. Eta komentau zostan nola klase batzuk zeren eta ba juango giñan ta gu ba hirurogeita hamahiruan nik uste dot hasi giñala juaten. Suposatzen dot astian pare bat egunetan-edo juango giñala hara eta hiru bat urtez-edo jardun giñuan klaseetara juaten. Txominek emoten zoskun gramatika: ba, gramatika, osea, ba, aditza, deklinabidia, analisi sintaktikua, morfologikua... Eta Joxuk emoten zeban Euskal Herriko historixia eta kultura gaiak. Hala osatzen zian. Uste dot talde gehixao ez zala eongo, gu talde bakarra izango giñala. Hamabi bat lagun. Pertsonetaz ez naiz asko gogoratzen, baiña gogoratzen dot Iñaki Mujikan emaztia haurdun zeuala garai hartan eta, ba, gure taldekua zala. Ta, biharbada, biharbada, Arana, Martin Arana be gure taldian egongo zan euskera ikasten. Martin Arana irakaslia izango zan orduan Elementalian. "Cerrajera"n lan eitten zeban laborategixan. Eta nik uste dot beste ikasliak zirela batzuk Elementaleko ikasliak eta beste batzuk "Cerrajera"ko enplegatu batzuk gehi kaleko personaren bat be ibiliko zan segurasko, ezta?

- Hori 1963an?

- 1963an hasi giñan gu. Nik uste dot guk hiru bat urte egin giñuala. Nik esango neuke hasieran apuntiekin ibiliko giñan, nik uste dot libururik be ez zeguala. Osea, ba... ba gerratia hasi zanetik haura izandu zan basamortu bat izan zan. Ezta? Eta gero 1965ian Jon Oñatibiak etara zeban `Euskera irrati bidez`, `Método de euskera radiofónico` famatua. Jon gudari ibilixa zan eta gero Estatu Batuetara eruan zeban Jose Antonio Agirrek. Eta handik bueltatu zanian, ba, bueno, liburu hau etara zeban. Eta liburu hori oso erabilia izan zan. Eta urtebete beranduau Patxi Altunak etara zeban `Euskera hire laguna`. Patxi be, ba, bueno, Salamancan ikasittakua; Innsbrucken egon zan be bai ikasten, Austrian. Eta gero denpora batian izan zan Koldo Mitxelenan ikasle eta kolaboratzaile. Eta Patxik makiña bat lan eingo zeban ondoren. Eta nik uste dot bi liburu... Patxirena nik ondoren ezagutu neban, Elementala utzita, baiña nik uste dot Oñatibiaren liburua gu iritsi giñala erabiltzera. Ezta? Eta, orduan, ba, Txominek bastante liburu zeukan etxian, baiña danak ziran erlijioñokuak. Ni bastante liburu irakurritakua naiz, baiña gai aldetik ez ziran oso... oso... ez dakit nola esan. Ezta?

18. Zeruko Argia eta Anaitasuna aldizkariak

- **Erref:** BER-355/022
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:43:43. **Bukatu:** 00:44:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Zeruko Argiako harpidedun egin zen gaztetan. Bilboko Anaitasuna aldizkariarekin batera, oso osagai garrantzitsua izan zen, euskara lantzeko eta gai interesgarrien berri izateko.

19. Euskaltzaindiakoekin alfabetatzen

- **Erref:** BER-355/023
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:44:43. **Bukatu:** 00:46:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

1967an ingenieritza ikasketak egitera joan zen Donostiara. 1971n Zizur Nagusira joan zen Euskaltzaindiakoekin alfabetatze klaseak jasotzera. Irakasleak aipatzen ditu. Bergarrez egiten zuenean, Donostian ez zioten ulertzen.

20. Ez dok amairuren kontzertua lehenengoz

- **Erref:** BER-355/024
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:46:18. **Bukatu:** 00:48:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Iruñean zela, Ez dok Amairukoen kontzertua entzun zuen lehen aldiz. Beste kultura ikuspegi bat zekarrela kontatzen du.

21. Bilboko bertso saioa debekatu zutenekoa

- **Erref:** BER-355/025
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:48:38. **Bukatu:** 00:50:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ordurako, Ondarroako antzerki talde batzuk ikusita zegoen. Benito Lertsundi 1965ean ikusia zuen. Txomin eta Eustakio Calvorekin Bilboko jaietara joaten zen; lehenengoz antolatu zuten bertso saioa ikustera joan ziren baina alkateak debekatu egin zuen.

22. Ganbarako Txominen argazki laborategia

- **Erref:** BER-355/026
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:50:27. **Bukatu:** 00:53:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Etxearen antolaketa azaltzen du. Txominek ganbaran bi gela zituen eta laborategia egin zuen, argazkiak errebelatzeko. Hainbat argazkilari eta argazki zale han ibilitakoak dira. Elkarte baten moduan funtzionatzen zuen.

23. Txomin laguntzaile

- **Erref:** BER-355/027
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:53:21. **Bukatu:** 00:55:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Gimnasio bat ere bazeukan Txominek etxeko ganbaran. Behar zuenari oxigenoa emateko instalazioa zeukan. Urretxindorra taldea eratu zutenak Agustinen kuadrillakoak ziren eta Txominek asko lagundu zien, letrak aukeratzen edo abestiak lortzen.

24. Etxeko ganbara denentzat zabalik

- **Erref:** BER-355/028
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:55:19. **Bukatu:** 00:56:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere lehengusu eta lagunek zirko bat egin zuten eta bi saio eskaini zituzten etxeko ganbaran. Beraien etxeko ganbara jende guztiarentzat zabalik zegoen.

25. "Juventudes parroquiales" eta margoketa klaseak

- **Erref:** BER-355/029
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:56:50. **Bukatu:** 01:01:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Kultura mailan, "Juventudes parroquiales" izeneko mugimendua sortu zen. Plazan "Artes y oficios" zegoen lekuan, dantzan egiten zuten eta bildutako diruarekin kultur ekimenak egiten zituzten. Zabalotegiko kultur etxean margoketa klaseak ematen zituzten.

26. Simon Arrieta margolaria

- **Erref:** BER-355/030
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 01:01:00. **Bukatu:** 01:04:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Simon Arrieta bergararra zen. Umetatik pinturarako dohaina zuen. Madrilen bolada bat eginda, Bergarara itzuli zen eta bizi guztian margotzen aritu zen. Herriko beste hainbat margolari aipatzen ditu.

27. Margolaritza garrantzitsua Bergaran

- **Erref:** BER-355/031
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:04:57. **Bukatu:** 01:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Bergaran margolaritzak garrantzia handia izan duela azaltzen du. San Martin Agirrekoaren urteurrenean egindakoaren berri ematen du. Anekdota bat kontatzen du. Simon Arrieta ez zuen irakasle ezagutu.

28. Beart elkartearen sorrera

- **Erref:** BER-355/032
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 01:07:23. **Bukatu:** 01:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Beart elkarte bere taldekoek osatutakoa dela uste du. Hainbat kide aipatzen ditu. Oso jarrera irekia zeukaten. Lehiaketetara joaten ziren.

29. Beart elkartearen erakusketak

- **Erref:** BER-355/033
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:11:00. **Bukatu:** 01:14:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Beartekoak Italiara joan ziren erakusketa bat egitera eta ordurako izen hori zeukan elkarteak. 1970erako bazuen forma bat. Bergarako Udaletxean gabonetako pintura erakusketa antolatzen zuten urtero.

30. Bergarako UNEDen sorrera

- **Erref:** BER-355/034
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:14:22. **Bukatu:** 01:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Bergarako elkarte gastronomikoek aldaketa egin zuten. UNEDeko bultzada aipatzen du eta hainbat lagun aipatzen ditu. Bergarako zentroa nola zabaldu zuten kontatzen du.

31. Ernai antzerki taldea

- **Erref:** BER-355/038
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:22:27. **Bukatu:** 01:25:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ernai antzerki taldea eta Urretxindorrek taldea 1965 inguruan sortu ziren. Hasieratik Txomin Amasorrainekin harremanetan jarri ziren, eta euskara lantzen lagundu zien, besteak beste. Txomin oroitarazle lanetan aritzen zen. Juste eta Itziar Amenabar ere Ernai taldeko zuzendaritzan zeuden.

32. Urretxindorrek taldeaz

- **Erref:** BER-355/039
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:25:24. **Bukatu:** 01:27:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Urretxindorrek taldea sortu aurretik, pinudian kantuz aritzen ziren. Haien

kontzertuetara joaten ziren. Euskara eta euskal kultur gosea zegoen eta oso talde maitatua izan zela dio.

33. Urretxindorrak taldeko kideak

- **Erref:** BER-355/040
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:27:46. **Bukatu:** 01:29:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Labegariaietako eskola bukatuta, elementalera joaten ziren ikastera. Hango lehen urteetan sortuko zela Urretxindorrak taldea uste du. Urretxindorrak taldeko kideak aipatzen ditu. Serafin Esnaola aipatzen du.

34. Ameslariak taldea eta Iñaki Arriaran

- **Erref:** BER-355/043
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:31:13. **Bukatu:** 01:34:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Ameslariak izeneko taldeko kideak aipatzen ditu. Iñaki Arriaran oso abeslari ona zela dio; Bergarako "sala de fiestas"-en abestu zuen urte askoan, taldeek jotzen baitzuten. Plazentziako mutil batzuk ere ibiltzen ziren.

35. Orfeoia, banda eta orkestra Bergaran

- **Erref:** BER-355/044
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:34:21. **Bukatu:** 01:35:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Don Roman Oiarzabal zuzendari ezagutu zuen orfeoian. Jabier Gantxegik eta, eskola baten premia ikusi zuten eta musika eskola sortu zuten. Bandarako eta orkestrarako jendea sortu izan da.

36. Dantzariak eta Moises Azpiazu dantza maisua

- **Erref:** BER-355/045
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:35:58. **Bukatu:** 01:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantzan Moises Azpiazu ezagutu izan du; aurretik, Migel Lazpiur eta beste hainbaten taldea ibili zen dantzan. Dantzariak aipatzen ditu.

37. Londresen ikusitako kultur emankizunek txundituta

- **Erref:** BER-355/046
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:38:06. **Bukatu:** 01:41:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Londresera joan ziren unibertsitateko karrera bukaerako bidaiara. "Hair" ikuskizuna ikusi zuten eta txundituta irten ziren. Zineman Jesukristo Super Star eta beste ikusi zituen.

38. Soldadutzan ezkutuan irakurtzen

- **Erref:** BER-355/049
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 01:44:44. **Bukatu:** 01:48:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzan liburu iraultzaileak ezkutatuta izaten zituzten euskaldunek; galiziarrek, etxekoek bidalitako gazta eta gutunak. Bere urtebetetzean aitona-amonen telegrama jaso zuen eta itzuli egin behar izan zien gaztelerara. "Triunfo" aldizkaria beti patrikan erabiltzen zuen.

39. Bergarako Aberri Eguna 1965ean

- **Erref:** BER-355/050
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:48:20. **Bukatu:** 01:50:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Bergaran Aberri Eguna egin zen 1965ean (1964 ingurua aipatzen du). Geratzen bazituzten, mezetara zihoazela esatea pentsatuta zeukaten. Klandestinitatean jende asko zebilen orduan.</p>

40. Telebista lehenengoz euskaraz entzun zueneko

- **Erref:** BER-355/052
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:53:25. **Bukatu:** 01:54:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gogoan dauzka lehenengoz euskaraz entzun zituen futbol partidaren emankizuna eta bakeroen pelikulak.

41. Euskara arima da

- **Erref:** BER-355/053
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:54:13. **Bukatu:** 01:56:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Gure herriko hizkuntza izateaz gain, euskara beretzat arima dela dio. Bere alfabetatzeko punteak erakusten ditu, arimaren irudia marraztuta zeukala erakusteko.

42. Oronaren eta Fagorren sorrera prozesuak

- **Erref:** BER-355/056
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 02:01:06. **Bukatu:** 02:04:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Oronaren eta Fagorren sorrera prozesuak kontatzen ditu.

43. Kooperatiben sorrera eta "Cerrajera"

- **Erref:** BER-355/057
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 02:04:04. **Bukatu:** 02:07:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Arrasaten errepublikano asko zegoen eta gerra garaian herri erdik alde egin behar izan zuen. Jende asko lanik gabe zegoen gerra ostean. "Cerrajera" oso enpresa aurreratua eta antolatua izan zen. Kooperatiba "Cerrajera"ren eredua jarraituz egin zela kontatzen du.

44. Txomin Amasorrain argazkilaritzan zela hasi zen

- **Erref:** BER-355/059
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 02:07:49. **Bukatu:** 02:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Txomin Amasorrain oso mendizalea zen; egunero joaten zen eta gero igeri egiten zuen. Ehizara joan zen batean, asko luzatu eta etxeakoak arduratan geratu ziren. Orduan, aitzak argazki kamera eskaini zion eskopetaren truke.

45. Txomin Amasorrainen eta Joxu Oregiren materiala alfabetatzerako

- **Erref:** BER-355/061
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 02:10:10. **Bukatu:** 02:12:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskaraz alfabetatzen aritu zenean, Txomin Amasorrainek oso material berezia zeukan prestatuta aditzak erakusteko. Joxu Oregik ere "paradigma del verbo vasco" gaiari denbora asko eskaini zion.

46. Venezuelako Euskadi Irratiarentzat finantziazioa

- **Erref:** BER-355/062
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 02:12:54. **Bukatu:** 02:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

EAJk Venezuelatik Euskadi Irratia igortzen zuenean, Iza izeneko bergarar bat etortzen zen finantziazio bila eta Joxu Oregik diruz laguntzen zuen. EAJkoek orduan espero zuten aliatuek Franco botatzen lagunduko zietela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com